


Telesailen idazketa sustatzeko eta oro har gidoilarien sektoreari bultzada emateko, SGAE Fundazioak honako laborategi honetan parte hartuko duten pertsonak hautatzeko lehiaketara deitu du:



Telesailak Sortzeko X. Laborategiak

sgae fundazioa

- **Eguneroko sailaren** berezia (Bartzelona)
- **Fantasiatzko edo beldurrezko sailaren** berezia (Madril)
- **Thriller edo polizia sailaren** berezia (Madril)

OINARRIAK 2023

01 Telesailak Sortzeko X. Laborategiak honako modalitate hauetan daude banatuta:

- a)** Eguneroko sailaren laborategia.
- b)** Fantasiatzko edo beldurrezko sailaren laborategia.
- c)** Thriller edo polizia sailaren laborategia.

02 Espainian bizi diren eta afiliazioa eskusibotasunean duten SGAEko bazkide guztiek parte hartu ahal izango dute aipaturiko laborategietan. SGAEko Zuzendaritza Batzordeko eta SGAE Fundazioko Patronatukoek izan ezik. Aurkeztutako proiektua lankidetzan egin bada, egilekide guztiak, salbuespenik gabe, SGAEko bazkideak izan beharko dira eskusibotasunean eta Espainian eduki beharko dute bizilekua.

03 SGAE Fundazioak 2023rako deitutako laborategi bakarrean soilik parte hartu ahal izango dute egile edo egilekideek, baina aurkeztu batera baino gehiagotara aurkeztu ahal izango dira, betiere proiektu desberdinekin aurkeztu badira kasu bakoitzean. Lehenago SGAE Fundazioaren laborategiren batean parte hartu duten egileek edo egilekideek beste laborategi batean, edo laborategi berean parte hartu ahalko dute, baldin eta azkenengoz laborategi horretan parte hartu zutenetik hiru deialdi igaro badira. Aurtengo edizioako laborategietako batean baino gehiagotan onartua bada, eskatzaileak SGAE Fundazioari jakinarazi beharko dio zein hautatzen duen.

04 Laborategi bakoitzean, bazkideek telesail bat egiteko proiektu bakarra aurkeztu beharko dute, edo banaka, edo beste egile batzuekin batera lankidetzan eginda; eta gaztelaniaz edo Espainiako Estatuko beste edozein hizkuntza koofizialetan idatzia. Proiektuan, honako hauek agertu beharko dira, gutxienez 10 orrialdetan: telesailaren deskribapena, formatua, unibertsoa, argumentua eta pertsonaiak. Gainera, telesaileko kapitulu pilotuaren gidoi-tratamendua aurkeztu beharko da beste 10 orrialdetan. Lankidetzan aurkezten diren proiektuetako egile kopurua, ezin izango da hiru (3) pertsona baino gehiagokoa izan. Lehiaketara aurkeztu den lana gaztelania ez den Espainiako Estatuko hizkuntza ofizialetako batean badago, egileak/egileek gaztelaniazko itzulpena aurkez dezake/dezakete, lanaren jatorrizko hizkuntza ez dakiten epaimahaikideek erabil dezaten. Egileak/Egileek gaztelaniazko itzulpenik aurkezten ez badu/badute, SGAE Fundazioak itzulpena egiteko baimena izango du, epaimahaikideek lan-tresna bezala erabil dezaten. Itzulpenok suntsitu egingo dira hautaketa-prozesua amaitzen denean.

05 Honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira, **PDF formatuan** eta **hiru fitxategi desberdinetan**:

- a)** Lan-proiektua (4. puntuan azaldutakoaren arabera), eta egilearen edo egilekideen curriculum vitae laburra.
- b)** Aurretiko sorkuntzen adibideren bat, sorkuntza literarioena, zein ikus-entzunezkoena (ikus-entzunezkoak badira, ikusi ahal izateko web-orrialderako esteka).
- c)** PDF dokumentua honako datu hauekin: datu pertsonalak eta harremanetarako datuak, esate baterako, izen-abizenak, egungo helbidea (ohiko bizilekua eta egoitza fiskala), helbide elektronikoa, telefono-zenbakia, jaioteguna, eta jaioterria eta SGAEko bazkide zenbakia. Horrez gain, SGAE Fundazioarentzako berariazko baimena aurkeztuko du (behar bezala sinatuta), Telesailak Sortzeko X. Laborategiak antolatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketa guztietan datu pertsonalak erabiltzeko baimena izan dezan. **Dokumentu hori aurkezten ez bada, eskatzailea deialdi honetatik kanpo geratuko da automatikoki.** Proiektuak egile bat baino gehiago badu, idazkia egile guztiek aurkeztu eta sinatu beharko dute, eta oinarri hauen 12. puntuan ezartzen denari buruz beraien artean lortu duten akordioa ere aurkeztu beharko dute.

06 Eskatutako dokumentazio guztia posta elektroniko bidez bidali beharko da **audiovisuales@fundacionsgae.org** helbidera **2022ko azaroaren 8tik abenduaren 9ra bitartean (biak barne)**, mezuaren gaian honako esaldi hau jarrita: **«[Egilearen edo egilekideen izena] – Telesailak Sortzeko X. Laborategiak – [Lehiatzen den espezialitatearen izena] berezia»**.

07 SGAE Fundazioak SGAEko bazkidea den/diren ikus-entzunezkoen arloko pertsona ezaguna/k hautatuko du/ditu laborategietako bakoitzeko zuzendari izateko. Haren/Haien egitekoa izango da sorkuntza-prozesu guztian zehar aukeratutako egile taldea koordinatzea eta orientatzea.

08 SGAE Fundazioak eskatutako baldintzak bete dituzten aurkeztutako proiektuen artean bost aukeratuko ditu gehienez espezialitate bakoitzean, honako prozedura honen bidez:

- a)** Epaimahai batek aukeratuko ditu; SGAEk izendatutako ikus-entzunezkoen arloko entzute handiko bost eta hiru profesional artean egongo dira epaimahaian. Espezialitate bakoitzeko epaimahaiko presidentea dagokion laborategiko zuzendaria izango da.
- b)** Aipatutako proiektuak aukeratzeaz gain, epaimahaiak ordezkoen zerrenda bat egingo du beste hiru proiektuekin gehienez, baina ez da argitaratuko; aukeratutakoak ordeztuko dituzte haiek uko eginez gero.
- c)** Epaimahaiaren erabakiak 2023ko neguan argitaratuko dira.

09 **SGAE Fundazioaren Telesailak Sortzeko X. Laborategietako** bileretara zuzendariak eta hautatutako proiektuetatik gutxienez egile bat bertaratuko dira. Laborategietan parte hartzeko hautatutako egile edo egilekideek lan-proiektua aurreikusitako epealdian egin beharko dute, zuzendariaren laguntzaz eta haren ikuskaritzapean.





- 10 Prozesuan, talde-lanerako bilerak egingo dira hautatutako egileen eta/edo egilekideen artean, obra bakoitzaren garapenaren berri emateko. Biler horiek laborategiko zuzendariaren ikuskaritzapean egingo dira beti eta presentzialak nahiz telematikoak izan ahalko dira, SGAE Fundazioak eta laborategiko zuzendariak kasuan kasu erabakitzen dutenaren arabera.
- 11 Laborategietako bilerak, presentzialak izan edo telematikoak izan, maiztasun jakin batez izango dira, lau hilabetez, 2023ko martxoan hasi eta urte bereko ekainera bitartean. Nahitaezkoa izango da, gutxienez, proiektu bakoitzeko egile bat egotea erakundeak ezarritako egun eta orduetan.
- 12 Egile bakarreko hautatutako proiekturen baten egilea laborategia egingo den hiritik kanpo bizi bada, SGAE Fundazioak ordainduko dizkio joanetorrietarako, ostaturako eta mantenurako gastuak, SGAE Fundazioak eta Laborategiko zuzendariak/zuzendariak presentzialki egitea erabakitzen dutenean. Hala ere, SGAE Fundazioak hautatutako proiektuen egile eta egilekide guztien gastu horiek ordaintzeko daukan aurrekontuko partidaren zenbatekoa ez da aldatuko, proiektu bakoitzeko egileen kopurua gorabehera. Zenbatekoa proiektu bakoitzeko egile bakar baten gastuak ordaintzeko kalkulatu da. Horri dagokionez, beharrezkoa izango da elkarlanean egindako proiektuen egilekideek aldeztatik aurretik adostea zein egile ordainduko zaizkion gastu horiek, bilera presentzialen kasutan. Hori, dagokion dokumentua adieraziko da, oinarri hauetako 5. puntuko c) ataleko fitxategiarekin batera.
- 13 SGAE Fundazioak 4.000 € ordainduko dizkio (zergak barne) aukeratutako proiektu bakoitzari. Egilea bakarra bada, zenbatekoa honela ordainduko da: 2.000 € laborategiaren hasieran eta 2.000 € amaitzean (azkeneko testua entregatu ostean). Bi ordainketak egin aurretik, hitzarmena sinatu beharko da eta indarrean dagoen legediak eskatutako baldintza guztiak betetzen dituen kobrantza-dokumentua (zuzenbideak legezt onartutakoa) aurkeztu beharko da.
- Aurkeztutako proiektua lankidetzan egin baldin bada, 4.000 €-ko zenbatekoa egilekideen artean bananduko da zati berdinetan, eta bakoitzari dagokion zatia bi zatitan emango zaio, aurreko paragrafoko irizpidea jarraituz (zati bat laborategiaren hasieran eta bestea laborategiaren amaieran, azkeneko testua eta kobrantza-dokumentua aurkeztu ostean).
- 14 Egileek eta/edo egilekideek konpromisoa hartzen dute proiektua [Telesailak Sortzeko X. Laborategietakoa](#) dela aipatzeko etorkizuneko eskubide lagatze-hitzarmenetan eta hortik atera daitezkeen materialetan.
- 15 Datu pertsonalak babestea: egileek eta/edo egilekideek emandako datuak SGAE Fundazioaren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko dira; kasu guztietan aplikatuko da Datu Pertsonalak Babesteko Legea eta horrekin bat datorren eta indarrean dagoen araudia. [Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, eramangarritasunerako, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko, egileek eta/edo egilekideek honako helbide honetara idatzi beharko dute, gauzatu nahi duten eskubidea zein den adieraziz: SGAE FUNDAZIOA, Bárbara de Braganza 7, 28004, Madrid \(Zerbitzu Juridikoarentzako dela jarrita\).](#)
- 16 Arau orokorrak:
- a) Proiektua egile bakarrekoa bada, egileak berak aurkeztu beharko du eskaria, eta, lankidetzan egindako lana bada, egilekide guztiek batera aurkeztu beharko dute.
 - b) Eskaera aurkeztean, parte-hartzaileak/parte-hartzaileek agiri honetan zehaztutako baldintzak eta oinarriak onartu beharko ditu/dituzte. Era berean, baimena emango dio/diote SGAE Fundazioari, laborategiari buruzko informazioa eskaintzean hautatutakoen datu profesionalak eta/edo irudiak erabiltzeko.
 - c) Parte-hartzaileek SGAE Fundazioa erantzukizunetik salbuetsiko dute, plagioa egin edo indarrean dagoen legea hausten badute.

d) Lehiaketa honen ondorioz, SGAE Fundazioak ez du agiri honetan adierazitakoa ez beste erantzukizun zuzen edo subsidiariorik izango laborategia egin eta garatzen denean.

e) SGAE Fundazioak eta hautatutako proiektuen egileek edo egilekideek elkarlanerako hitzarmen espezifikoa izenpetuko dute. Bertan, dokumentu honetan ezarritako arauak agertuko dira nahitaez, eta baita honako informazio hau ere:

- Alderdi bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak.
- Laborategiaren hasieraren eta amaieraren epea.
- Azkeneko testua aurkezteko data.
- Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.
- Ordaintzeko modua.
- Laborategiaren jarraipena (txostena, ebaluazioa eta amaierako testua).

f) SGAE Fundazioak eskubidea izango du deialdi hau egokitze baldin laborategietako lanak gauzatzea eragozten duen ezohiko gorabeherarik izaten bada.

g) Dokumentu honi ezartzen zaion legeria Espainiakoa da eta alderdiek Madrilgo hiriburuko Auzitegien jurisdikziopean egotea onartzen dute. Uko egiten diote, beraz, dagokien eskumenari.

MATERIALAK BIDALTZEKO HELBIDEA

audiovisuales@fundacionsgae.org

INFORMAZIOA

Interesdunek arau hauei buruz galderak egin edo informazio gehiago nahi badute:

audiovisuales@fundacionsgae.org

informacion@fundacionsgae.org

Tel. 91 503 68 00

www.fundacionsgae.org

www.sgae.es



**Financiado por
la Unión Europea**
NextGenerationEU



**Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia**

TELESAILAK SORTZEKO X. LABORATEGIAK
SGAE FUNDAZIOAK DATU PERTSONALAK ERABILTZEKO BAIMENA, TELESAILAK
SORTZEKO X. LABORATEGIETAKO ESKATZAILEAREN/ESKATZAILEEN PARTAIDETZA
KUDEA DEZAN

..... jn./and., jaioteguna.....
NAN/AIZ....., helbidea....., posta-kodea.....
herria....., posta elektronikoa.....
telefonoa..... eta SGAEko bazkide-zenbakia.....

Bere burua ordezkatzuz eta bere eskubidea erabiliz.

..... jn./and., jaioteguna.....
NAN/AIZ....., helbidea....., posta-kodea.....
herria....., posta elektronikoa.....
telefonoa..... eta SGAEko bazkide-zenbakia.....

Bere burua ordezkatzuz eta bere eskubidea erabiliz.

..... jn./and., jaioteguna.....
NAN/AIZ....., helbidea....., posta-kodea.....
herria....., posta elektronikoa.....
telefonoa..... eta SGAEko bazkide-zenbakia.....

Bere burua ordezkatzuz eta bere eskubidea erabiliz.

ADIERAZTEN DU/DUTE:

- 1. Bere/beren borondatez aurkezten duela/dituztela Telesailak Sortzeko X. Laborategiak ekimenean parte hartzeko eskaera/k.
- 2. Deialdi honetako oinarriak irakurri eta ezagutzen dituela/dituztela eta horien edukia onartzen duela/dutela. Horretarako, curriculum vitae-a aurkezten dute.
- 3. Badakiela/Badakitela Telesailak Sortzeko X. Laborategiak ekimenaren deialdi honetan izango duen/duten partaidetza kudeatzeko SGAE Fundazioak datu pertsonalak erabili beharko dituela, laborategian parte hartu ahal izateko eta epaimahaiak proiektuak hautatu ahal izateko egin behar dituen administrazio-arloko kudeaketak burutze aldera.

Adierazitakoa kontuan hartuz, **BERARIAZ ONARTZEN DU/DUTE:**

SGAE FUNDAZIOAK idazki honetan eta Telesailak Sortzeko X. Laborategiak ekimenean parte hartzeko eskaera-orriekin batera bidalitako curriculum vitae-an agertzen diren datu pertsonalak erabiltzea, laborategian parte hartu ahal izateko eta epaimahaiak proiektuak hautatzeko egin behar dituen administrazio-arloko kudeaketak burutze aldera.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak) eta abenduaren 5eko 2018 Lege Organikoak eta xedapen osagarriek xedatutakoa betez, badakiela/badakitela SGAE FUNDAZIOAK dituen datuak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak dituela/dituztela, eta baita datuen eramangarritasun-eskubidea eta datuak erabaki indibidual automatizatuen objektu ez izateko eskubidea ere. Horretarako, SGAE Fundazioaren Zerbitzu juridikoetara idatzi beharko dute, erakundearen helbidera: Bárbara de Braganza 7, 28004, Madrid (Espainia). Idazki horretan, izen-abizenak, NANA, helbidea, gauzatu nahi duen/duten eskubidea eta horretarako zergatia adierazi beharko dira.

Eta, hala jasota gera dadin, baimen eta onarpen hau sinatzen du/dute,

..... (e)n, 2022ko.....ren.....(e)(a)n.

..... jn./and. jn./and. jn./and.